

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeari buruz”, **URGENTZIAZKO PROZEDURAZ** eztabaidatua izan dadin **osoko bilkuran**.

ZIOA

Genero Indarkeriaren Biktimentzako Osoko Laguntza bere eginkizunen artean dago, zerbitzuak era koherentean antolatzeko eta indarkeria-mota horren biktimei babes osoa ematen zaiela bermatzea. Legealdi berrian ez da bildu Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea, aldiz, hutsuneak nabarmen geratu dira azken egunotan Zarautzen izan diren gertaera lazgarrien aurrean. Ezinbesteko deritzogu bilera egitea berehalakoan, agerian geratu diren hutsuneak aztertzeko eta soluzioak emateko. Hori dela eta, Aralarrek hurrengo lege besteko proposamena aurkezten du, urgentziaz eztabaidatua izan dadin, osoko bilkuran:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, dei dezala berehalakoan, Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen bilera, indarrean dauden politiken hutsune esanguratsuak ahalik eta azkarren zuzentzeko.

URGENTZIAZKO ZIOA

Zarautzeko gertaera lazgarrien ondotik, eta ikusita gertaera horren inguruan hainbat erakundek eta gizarte zerbitzuek parte hartu zutela, genero indarkeriaren hainbat salaketa tarteko, ezinbesteko deritzogu, lehenbailehen, Jarraipen Batzorde horren bilera egon daitezkeen hutsuneak modurik egokienean konpontzea

Gasteizen, 2010eko urriaren 8an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea